

AGUR BENIDOR!

(Markoxek hil dau...)

1
Benidorren egonak
hamairu bat egun
ta jakin nahi badozu
han zer egin dogun:
geuri begiratuta
ez al da ezagun?
Ikus ze umore ta
kolore daukagun.

2
Berrogeitamar lagun
Bizkai aldekoak,
buruz eta bihotzez
euskaldun petoak.
Adinekoak baina
bihotz gaztekoak,
oraindik juergarako
sasoi onekoak.

3
Famili askotako
jente nagusia,
bizimoduan zehar
asko ikusia.
Gorputzez makalbaina
bizirik zuzia,
jente honek badauka
zer erakutsia.

4
Ez da errez asetzen
gure apetitu,
janak janda gero be
gehiago kabitu.
Eztul danean eztul,
noiznahi domistiku,
haize epelik bada
bota eta kittu!

Ondo astindu doguz
plater ta katilu,
barbantzu, arrain, okel
goxo ta menbrilu...
Traidore jarri jakuz
pixu ta ispilu:
prakak lotu ezinik
ai zenbat istilu!

6
Hemen esandakoa
ez da barriketa,
lagun, hau dinotsunak
ondo daki eta.
Ahaztuta euki dogu
etxeko dieta,
ondo merezi dogu
jatun etiketa.

7
Ez da hau Benidorren
egin dogun dana,
onena esateko
daukagu, laztana.
Kristau bizitza lantzen
ai, gure afana!
Nun eta Benidorren
egundoko lana.

8
Eguneroko meza
San Jaime elizan,
gauza ederragorik
nekez al da izan.
Hortik zeuok igarri
gu zelan gabizan,
gorputz t'arimaz sano
tokatzen dan gisan.

9
Aitatu behar dogu

arratsaldekoa,
a zer jardunaldia
ordu t'erdikoa!
Aztertuz ta ospatuz
"Aita Jaungoikoa";
Sekulan ezer bada,
bihotz betekoa.

10
Ondo lo egin eta
ahal dana ahora,
paseo, jimnasia
nahibeste denpora...
Askok esango dabe:
Hori dok ganora!
Programatuta gagoz
gu Bizian Gora.

11
Gogorra izaten da
briska txapelketa,
batzuk eskuak hutsik
besteak beteta.
Azkenean hauxe da
danen barriketa:
"Irabazten dabenak
kartak dituk eta".

12
Arpegi edo txanka
hartu nahi kolore,
Benidorretik gatoz
gorri edo more.
Holako leku baten
nok emon amore?
Benidorren ibili
gara txit dotore.

13
Burpil biko maletak
ekarritakoak,

nun sartu mila traste
erositakoak?
Argi egin deiskula
gure Jaungoikoak,
haruntz beharko dira
lau burpilekoak.

14

Ez da esatekoa
gure konfiantza,
benetan hartu dogu
sendi baten antza.
Batera jan ta otoitz
jolas eta dantza,
alkarbizitza honek
ezin leike kantza.

15

Danetan jartzen dogu
guk atentzinoa,
ondo jan-edan arren
hartu tentzinoa...
Luzatzea izan arren
guk intentzinoa,
hau neurtzen dauana da
gure pentzinoa.

16

Astunak izan ziran
lehengo artajorrek,
baina sano daukaguz
oraindik mokorrek.
Banakatxu bat hazur
daukaguz gogorrek,
baina gogo-bihotzak
gazte ta bixkorrek.

17

Benidorren badira
hotelak askorik,
baina guretzat ez da

Canfali lakorik.
Euskaldunez beteta
goi ta behe osorik,
han be ez zan sartuko
gure modukorik.

18

Zer deritxazu, lagun,
gure erromeria?
Munduan egiten dau
bakotxak beria.
hantxe konpontzen
jakuz
mila aberia,
urterako beteaz
gure bateria.

19

Hau Zuri zor deutsugu
Aita Jaungoikoa,
ixuri deuskuzu bai
mesede nahikoa!
Hartu gure baietza
behin ta betikoa,
Eskerrik asko Zuri
bihotz betekoa!

20

Ondo ibili gara
Benidor partian,
dana ondo joan jaku
gure alkartian.
Barrero izango da
datorren urtian,
Jaunak lagun deiskula
bien bitartian.

21

Gorputz eta arimaz
bete osasunez,
hauze da ibiltea

tokatzen jakunez.
Jarrai daigun aurrera
alkarmaitasunez,
geure Bizian Goran
ikasten dogunez.

22

Txarto eginik bada
bihotzez parkatu,
eta ate-ostean
betiko sakatu.
Alkarren alde sarri
Jaunari eskatu:
eskuzabalez gaizan
danok bedeinkatu.